

## KATEKESIA: UKARISTIAREN SAKRAMENTUA



Hona hemen Eukaristiaren sakramentuan sakontzeko aukera emango dizuen materiala. Horretarako, dinamika labur bat aurkeztuko dugu etxean lantzeko eta beste lagungarri batzuk katekesiko taldean, taldekideak bertan daudela, saio bakarrean edo bitan garatzeko.

Beharbada hainbat taldetan honezkero landu dute zerbait gai honen inguruan haurrak bertan direla edo on-line, baina garrantzitsuzat jotzen dugu Lehen Eukaristiaren aurretik sakramentu honen inguruko gauzarik garrantzitsuenak gogora ekartzea.

### HELBURUAK:

- "Komunioa" hitzak zer esan nahi duen jakin
- Eukaristia zer den eta kristau bezala bizitzeko nolako garrantzia duen ulertu
- Eukaristian parte hartu eta Jesusek gonbidatuta ospatzen dugun elkarte ospakizun bezala bizi

## – ETXEAN EGITEKO SAIOA



Itxaronaldiaren ostean, katekesiko saio batzuk ospatu nahi ditugu; aurretik, hona hemen lantxo bat etxean egin dezazuen. Baliteke zuotako batzuek aurretik landuta izatea, baina horrek ez du axola, katekesian gaude eta ondo datorkigu gogoratzea.

Bideoa ikusiko dugu: Zer da komunioa?

<https://www.youtube.com/watch?v=Wt2mBlggPII>

(1.57 minututik aurrera).



- Ikasi ote dugu gauza berririk? Zer?
- Bideoa ikusi eta 'ETXEKO NORBAITI BESARKADA EMAN' proposatutako ariketaren ostean, galdera hauek egin diezakiekegu, erantzun ditzaten:
  - Gustukoa izan da beste norbaiti besarkada ematea?
  - Zer sentitu dugu?
  - Besarkatu dugunak ere esan diezaguke zer sentitu duen.

Egun gutxi barru katekesiari ekingo diogu eta urrats garrantzitsua emateko prestatuko gara: Jainkoarekin bat egingo dugu Eukaristian. Beraz, une garrantzitsu hori bizi aurretik, hainbat gauza berri ezagutuko dugu. Hasteko, hizki-zopa osatu, Eukaristiaren zatirik garrantzitsuenak zeintzuk diren jakiteko. Aurkitu dituzu? Badakizu zeintzuk diren? Ez arduratu, katekesiko saioan banan-banan aztertuko baititugu.

Bake-Besarkada  
Kredo  
Irakurgaiak  
Gure Aita

Harrera  
Ebanjelioa  
Ofertorioa  
Barkamena

Komunioa  
Agurra  
Jainkoaren herriaren otoitza  
Santu

Kontsakrazioa  
Homilia

## HIZKI-SOPA

A	B	D	E	I	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	R	S	T	U	X	S	Y	Z	A	B	D	E
F	G	I	J	R	K	L	A	M	N	Ñ	O	P	R	S	T	U	X	Y	Z	A	A	O	D	E	R	K	B
D	E	F	G	A	I	J	G	U	R	E		A	I	T	A	K	L	M	N	Ñ	N	O	P	R	S	O	T
U	X	Y	Z	K	O	M	U	N	I	O	A	A	B	D	E	F	G	I	B	J	T	K	L	M	N	N	K
O	P	R	S	U	T	U	R	X	Y	Z	A	B	D	E	F	G	A	I	A	J	U	K	L	M	N	T	Ñ
O	P	R	S	R	T	U	R	X	Y	Z	A	B	D	E	F	R	G	I	R	A	B	D	E	F	G	S	I
J	K	K	M	G	N	O	A	P	R	S	T	U	X	Y	E	Z	A	B	K	D	E	F	G	I	K	A	J
L	X	M	N	A	O	P	A	B	D	E	F	G	I	R	J	K	L	M	A	N	Ñ	O	P	Q	R	K	S
T	U	X	Y	I	Z	A	A	Z	Y	X	U	T	R	S	R	P	O	Ñ	M	N	M	L	K	J	I	R	G
F	E	D	B	A	A	A	B	D	E	F	G	A	D	A	K	R	A	S	E	B		E	K	A	B	A	A
J	A	I	N	K	O	A	R	E	N		H	E	R	R	I	A	R	E	N		O	T	O	I	T	Z	A
B	Y	A	O	I	R	O	T	R	E	F	O	E	F	G	I	J	K	L	A	M	N	Ñ	O	P	R	I	S
T	Ñ	X	Y	Z	A	B	D	E	F	G	M	I	J	K	L	M	N	Ñ	O	P	R	S	T	U	X	O	Y
Z	A	B	D	E	F	G	I	J	K	L	I	M	N	Ñ	O	P	Q	R	S	T	U	X	Y	Z	A	A	B
D	E	F	G	I	E	B	A	N	G	E	L	I	O	A	K	L	M	N	Ñ	O	O	P	R	S	T	U	X
Y	Z	A	B	D	E	F	G	I	J	K	I	L	M	N	Ñ	O	P	R	S	T	U	X	Y	Z	A	B	D
J	I	G	F	E	D	B	A	Z	Y	X	A	U	T	S	R	P	O	Ñ	N	M	L	K	J	I	G	F	E



**KATEKESIRAKO II. SAIOA** (Taldeko katekistak ikusiko du zenbat denbora duen eta, ondoren, saio batean ala bitan garatuko du gaia, lagungarriak taldearen egoerara egokituz)


**1.** Hurrei Eukaristia zer den, Eukaristiaren zati bakoitzean zer ospatzen dugun ezagutarazi nahi diegu saio honetan.

Hasteaz batera, irudia erakutsiko diegu (zer den esan gabe). Badakigu zer irudikatzen duen? Horren inguruan elkarrizketan jardun.

**2.** Jaunaren Afariaren Sakramentuaren esanahia: galderaren bat eginez, Eukaristiak zer adierazten duen ikusiko dugu.

Datuak katekistentzat:

- Jesusek bere mahaira gonbidatzen gaitu
- Eukaristia, eskerrak ematea da
- Eskerrak eman, zergatik? – *eskerrak emateko dituzten arrazoiak adieraz ditzatela esan diezaiekegu neska-mutikoei*
  - **Ad.:** *Eskerrak emango ditugu Jesus geurekin geratu delako... Indarra ematen digulako Berak nahi duen bezala bizi gaitezen...*
  - **Beste adibide bat:** *Edozein kirolarik, bere helburua –partida, lasterketa,... irabazi- lortzeko, asko zaintzen du egoera fisikoa, elikadura... Zertarako? Bere helburura ahalik eta ondoen iristeko.*  
***Geuri ere balio digu horrek. Jesusek erronka jarri zigun bere adiskide izateko: "elkar maite". Indar eta adorea behar ditugu lortzeko, ez baita erraza. EUKARISTIAN jadets dezakegu adore, poztasun hori, elkar maitatzeko gogo hori, horrela Jesusek proposatutako erronka gainditzeko.***
  - *Baina hobe da bakarrik ez egitea, hobe da elkartzea eta horregatik, igandero, bat egiten dugu guraso, anai-arreba eta adiskideekin elizan eta elkarrekin eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari.*



\* *Ideiak batera jarri ahala, marrazkia osa dezakegu hainbat esaldirekin (agiriari erantsita, **5. ERANSKINA**)*

– *Eukaristia*

– *Jesusek bere mahaira konbidatzen gaitu*

– *Alkar maitatu egizue*

– *Eskerrak ematea*

**3.** Eukaristia aztertuko dugu orain.

### **Zer ospatzen dugu Eukaristian?**

Neska-mutikoek ideiak batera jar ditzatela (hizki-zopan jakin dutena eta igandeko Eukaristian ikusten dutena gogora ekarriz).



**4.** Ondoren, dinamika garatuko dugu haurrekin, Eukaristiaren zatien esanahiaz jabe daitezzen.

- Bi edo hiru laguneko taldeetan bana daitezela (katekesiko taldean dugun haur-kopuruaren arabera), Eukaristia osatzen duten 4 zatiak kontuan hartuta.

- HASIERAKO OHIKUNEAK
- HITZAREN LITURGIA
- EUKARISTIA-LITURGIA
- AMAIERAKO OHIKUNEAK

- Talde bakoitzeko kartulina bana emango diegu. Aldeetako batean, Eukaristiaren zati horri buruz dakitena marraztu, idatzi... egingo dute.

- Hori amaitu ondoren, beste hau egingo dute: zati bakoitzaren marrazki eta azalpenen zatiak banatuko dizkiegu nahasita; zein ordena eta azalpen dagokien pentsatu eta gauzatu beharko dute.

- Ondoren, kartulinaran itsatsi.

- Aurretik zekitena eta antzeman duten berria aztertu.

- Azkenik, talde handian batera jarri eta guztien artean, zatien eta Eukaristiako ohikuneen esanahiaren mural handia osatu.



**ANEXO 1 Oharra: Dinamika hau garatzeko, eranskin erara aurkezten dugun materiala behar duzue. "Partes de la Santa Misa" izenburua duen ppta da.**

5. Amaitzeko, "Eukaristiaren ohikune eta zatiak" power pinta (2.eranskina) edo "Mezaren zatiak" bideoa ikus dezakegu (3.eranskina)

**2. ERANSKINA: PPT "Eukaristiaren ohikune eta zatiak"**

**3.ERANSKINA: "las partes de la Misa" bideoa.**

<https://www.youtube.com/watch?v=9GIbRnkbtvg>

6. "La misa es una fiesta muy alegre" abestia entzunez emango diogu amaiera saioari.

**4. ERANSKINA:** [https://www.youtube.com/watch?v=5BzOS\\_PPwel](https://www.youtube.com/watch?v=5BzOS_PPwel)

# EUKARISTIA

JESUSEK bere mahaira  
konbidatzen gaitu

ESKERRAK EMOTEA

ALKAR MATTATU  
EGIZUE